

DOS SONETOS BASCONGADOS.¹**AMALAUDUNA.**

Igande arratseko gauaren erdian,
 Ill berria zan eta gaua chit illuna,
 Gure itsua nuen, icharki argian
 Arkitu—ziolarik: au bakartasuna!
 ¡Juan Mari!—esan nion—nere iritzian
 Oso erotu zera:—Ez, ez, maisu jauna,
 —Eranzun zidan—zeren, au det aspaldian
 Igande gauerako neretzat laguna.
 ¿Nai du jakin zergatik? bada serenoak
 Ibilli oi dirade sagardo denboran,
 Argiak itzalirik, egiñaz zialdoak:
 Eta nola lengoan sudurra autsi ziran
 Neronek ezagutzen dedan *zikiroak*
 Ez det beste *tope* bat nai alako eran.

C. DE OTAEGUI.

*
* ***AMALAUDUNA.**

Ziri charra ez nak sartu, ¡au estutasuna!
 Nai ta eziñ emanik eskatzen nakana.
 ¡Tontotzarra! ¿Uste aldeak dala Amalauduna
 Gauza edozeiñ dendetan orla erosten dana?
 Nola neurtzaldi ori ez dan Euskalduna
 Moldatzeko gogotik bear da egin lana,
 Ta alaz guzigaz ere, lagun chit kutuna,
 Pozik gelditzen bada arditekeana.
 Baña..... aizak, dauzkadala nak konturatutzen
 Bi lauko egiñak, eta lenengo irukoa
 Neurtz onekin dala ongi osatutzen.
 Beste iruko batekin zeaukat osoa.....
 Ia, begira *amairu* ditukan kontatzen.....
 Bat geiago..... eta ona gure AMALAUKOA.

JOSÉ MANTEROLA.

(1) Como ampliacion práctica al artículo que publicamos en nuestro número anterior sobre esta combinación métrica, y ensayos á la vez de sonetos bascongados con versos de á 13 sílabas, damos á conocer los dos siguientes. En el último empleamos el tratamiento ordinaria ó en *ik* para dar á conocer esta particularidad de nuestro hermoso idioma, poco usada en el lenguaje literario.